

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialak ia 3 milioi euro jarriko ditu 2018an pertsona okupatuen lanbide- heziketarako

Ikastaroak antolatzen laguntzen deialdian eskaera egiteko epea urtarrilaren 25ean amaitzen da, eta, bertan, ezgaitasuna duten pertsonentzako programazio espezifikoarekin

Asteazkena, 2018.eko urtarrilak 10

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NL-NEZ) aurten 2.900.000 euro jarriko ditu batik bat jadanik enplegua duten pertsonen zuzendutako lanbide-heziketako ikastaroak antolatzen dituzten erakundeetara diru-laguntza emateko. Edonola ere, trebakuntza hobetzeko aukera izango dute prestakuntza-programetan parte hartzen duten langabeek. Prestakuntza emateko interesatuta dauden erakundeek [eskaerak aurkezteko](#) epea urtarrilaren 25ean amaitzen da.

Diru-laguntza hainbat lerrotan egituratzen da; esate baterako, nabarmentzekoak dira prestakuntzako zeharkako programak, diru-laguntzaren partidarik handiena jasoko dutenak, zehazki 2.550.000 euro. Halaber, gizarte-ekonomiako enpresetako bazkide eta langileentzako zeharkako programak finantzatzeko dira 100.000 euroekin; autonomoentzako zeharkako programek, berriz, 200.000 euroko diru-laguntza izango dute. [2018ko Deialdian](#) berrikuntza bat nabarmendu behar da; alegia, ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileentzako programa espezifikoarekin finantzatzeko da, eta horretarako 50.000 euro jarriko dira.

Programa Enplegu eta Lan Gaietarako Arloko Biltzarretik datozen funtsekin ordainduta dago.

Prestakuntza-prozedura Eskubide Sozialen Departamentuak [diseinatutako politikan](#) kokatzen da, eta horren helburua da jada lanean ari diren pertsonen nahiz jardueren profesionala autonomo gisa garatzen dutenen prestakuntza bultzatzea.

Era berean, prestakuntza-programetan parte hartzen duten langabeei laguntzak eta bekak ematea jasotzen da, eta eskaintako plazen %40a bitarte eskuratzeko aukera izango dute.

Dagoeneko NAOren argitaratuta dagoen Deialdian azpimarra daitekeen beste alderdi bat da prestakuntza-jarduerak profesionaltasun-zurtagiria lortzera bideratu behar direla edo Espezialitateen Katalogoko prestakuntzako espezialitateetakoak izan behar dutela.

Ikastaro bakoitzean gehenez 30 lagun hartuko dira edo 25 Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko bada.

Deialdian zehazten da erakundeen proposamenak baloratzeko, kontuan hartuko direla prestakuntza-ekintzak bat etortzea Nafarroako Espezializazio Adimentsuko Estrategiarekin. Horren barnean, balio erantsi altuko jarduerak identifikatu dira. Halaber, deialdiaren xedeetarikoa bat da bertaratutakoen trebetasun profesionala, eta, ondorioz, enpresen lehiakortasuna hobetzea funtsezko lehentasun ekonomikoetan. Horrez gain, aitzat hartuko dira aurrean aipaturiko pertsonen taldeak izatea, ikastaroek profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko aukera ematea, prestakuntza emango duen erakundeak duen esperientzia eta aurreko urtean emandako diru-laguntzaren gauzatzeko-maila.

Diru-laguntzak lortu ahal izango dituzte Nafarroako Foru Komunitatean enplegurako lanbide-heziketa emateko dagokion erregistroan izena emanda edo ziurtatuta dauden erakunde publiko nahiz pribatuek, Lanbide Heziketako Zentro Integratuak, titulartasun pribatukoak, barne.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren emaitzak honako web orrialde hauetan argitaratuko dira: www.empleo.navarra.es

edo www.formaccion.info .

Ekintza bakoitzeko eman beharreko laguntzen zenbatekoa moduluen sistema bidez emango da; hau da, gehieneko prezioa izango du ikastaroaren familia profesionalaren eta prestakuntza-mailaren arabera: ikastaro motaren eta mailaren arabeko prezioa, parte-hartzaile bakoitzeko eta orduko, 5,60 eta 8,97 euro artekoa izango da. Prozedurak administratiboki deialdia sinplifikatzen du, eta lanak aurrezten dizkie erakunde interesatuei nahiz NL-NEZi.

Orobat, prestakuntza Iruñako zonan pilotzea saihesteko neurriak jasotzen dira, Foru Komunitateko gainerako enplegu-eremuetan ere antola daitezten.